



ZEURE UDALAK INFORMATZEN
www.laudiokoudala.net
www.ayuntamientodellodio.net

ZUIN



1. hamabostaldia. Maiatza 2012 447 Zk. Ale kopurua: 8.000

Beste urte batez Gardeako jaien topagune bihurtuko da Santa Krutzeko ermita

MAIATZAK 1 ASTEARTEA
12,00 Elkarretaratzea Hiru Gurutzetan eta Santa Krutzeko ermitarako iguera trikitixa giroan

MAIATZAK 3 OSTEAGUNA
12,00 Meza santua Andere abesbatzarekin.
Jarraian Andere abesbatzaren kontzertua.

Jarraian Luncha Gizarte etxean.
19,00 Gardeako frontoian. Emakumezkoen gomazko paleta partidak Herriaren klubak antolatuta eta Arabako eta Bizkaiko bikoteen artean.
19,00 Lankaietako Lagunak taldearekin kalejira Gardea auzoan.

MAIATZAK 4 OSTIRALA
16,30etik 17,45etara Gardeako bolatokian, eskolarteko Santa Cruz bolo jaurtiketaren sari nagusia, Bolatoki Ruperto Urquijo klubak antolatuta.
18,00etik 19,30etara, Gardeako bolatokian, senior eta emakumezkoen arteko Santa Cruz bolo jaurtiketaren sari nagusia, Bolatoki Ruperto Urquijo klubak antolatuta.

klubak antolatuta.
19:00 Txupinazoa eta txosna irekiera
20:00 Txistorrada
20:00 Berbena Memphis orkestrekin

MAIATZAK 5 ZAPATUA
10,30etik 11,30etara Gardeako bolatokian, eskolarteko Santa Cruz bolo jaurtiketaren sari nagusia, Bolatoki Ruperto Urquijo klubak antolatuta.
11:00 Bizikleta martxa Laudio plazaetik Santa Krutzeko ermitaraino
11,30etik 12,30etara, Gardeako bolatokian, senior eta emakumezkoen arteko Santa Cruz bolo jaurtiketaren sari nagusia, Bolatoki Ruperto Urquijo klubak antolatuta.
12:30 Simulatutako zezenenik haurtzetako entzierroa
12:30 Pintxo-potea txosnan
16:30 Gardean, Galtzagorri K.Tko buruhandiak.
18:00 Gardeako frontoian .Nagusien paleta txapelketa Herriaren klubak antolatuta.
18:00 Txokolatada

20:00 Simulatutako zezenen entzierroa haurtzetaz
20:00 Pintxo potea txosnan eta txistorrada
21:00 Berbena Memphis orkestrekin

MAIATZAK 6 IGANDEA
10:30 Herriaren klubak antolatutako Benjamin arteko pilota partidak Gardeako frontoian
Jarraian Herriaren klubak antolatutako bat bateko pilota partidak Gardeako frontoian.
11,30 Meza santua Santa Krutzeko ermitan Santa Luzia abesbatzarekin.
Jarraian Santa Luzia abesbatzaren kontzertua Santa Krutz ermitan.
13,00 Santa Krutzeko ermitan euskal dantzak Kilkerrak taldearekin
13:30 Pintxo potea txosnan
14:30 Herri bazkaria, zozketa eta jarraian mus, tute, briska eta domino txapelketa
19,00 San Roque musika bandarekin kalejira.
19:00 Berbena Memphis orkestrekin.

"Laudio infragorritan" argazki erakusketa

Kultura Etxeko Etxe Nagusiak, maiatzaren 4tik 13ra bitartean, Jose Montes argazkilaria laudioarrak prestatutako "Laudio infragorritan" argazki erakusketa hartuko du; erakusketak herriko txoririk ohikoenen ikuspegi berriak luzatuko dizkie astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta larunbata eta igandetan 11:00etatik 13:00etara bitartean bertara hurbiltzen diren guzkiei. Sarrera libre eta doakoa.

Baisalako gazte eta haur taldeei omenaldia

Belaunaldi berriek ere dantzak eskaintzen dituen onura guztiak gozaten ondo baino hobeto dakitelako, Aretotik Dantzen elkarrekin Baisalako omenaldi festa antolatuko du datorren igandean, maiatzak 6 17:30etatik 20:30etara bitartean dantza latino eta jazz mugimenduak praktikatzeko dituzten gazte eta haurren mesederako. Marta eta Zuriñe irakasleek parte hartuko duten hitzordu berri hau Laudioako Kafe Antzokian egingo da eta, nola ez ohiko zozketak ere egingo dira.
Eta festa giroak behera egin ez dezan, ilusioa eta saltsa mugimenduak beste hitzordu batean nagusi izango dira: maiatzaren 11n, Antzokian eta gaueko 22:30etatik aurrera egingo den festa handian. Bertan, ohiko zozketez gain, Manoli andereñoa izango da, koreografia, animazio eta gainontzeko sorpresak handi egiten.

Segi zuzeneko musikaren onenaz gozaten Drumgorriren eskutik

Zuzeneko musikak duen onena gozatea gauza erraza da, Drumgorri bezala rock musikaren aldeko apustua bidean topatuz gero... Drumgorri bezalako eragileek lortzen dute sortzen ari den musikari etekin onena ateratzeko, beti ere ikusle, entzule eta musikazale guztiak lan horren lekuko izan zaitezten. Aukera berriak hurrengo egunetan Gardeako tren geltokitik hurbil kokatutako musikaren aretoan:
• **Maiatzak 4**, ostirala 23:00etan. Sarrera 5€ LIQUID GRAVEYARD (Ingalaterra) + FIEND (Bilbo)
• **Maiatzak 5**, larunbata 23:00etan. Sarrera 5€ OVERLOUD (Donosti) + KAUCE (Bilbo)
• **Maiatzak 11**, ostirala 23:00etan. doan LUTER (Madril)
• **Maiatzak 12**, larunbata 23:00etan. Sarrera 5€ 13 LEFT TO DIE (Gasteiz) + OST (Bermeo)

GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"

LAMUZA 13 KALEA
infogazte@laudiokoudala.net
ORDUTEGIA: Astelehen, asteazken eta ostiraletan
16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



Berdintasun arloak emakumeei zuzendutako bi tailer berri antolatuko ditu

Antsietatea eta estresa maneiatzeko tailerra. Emozioak kontrolatzen lortu
Sentimenduak, antsietatea edo eta emozioak maneiatzeko ikastaroa da hau, bai norberarek eta bai gainontzeko pertsonenak ere. Giharak eta arnasketa lasaitzeko jarduerak beteko dira eta autoestima, autokontrola edo enpatia bezalako baloreak indartuko dira.
Zazpi sesio izango dira, maiatzaren 17an hasita eta hurrengo egunetan: maiatzean 24, 29 eta 31 eta ekainak 7, 14 eta 21 17:30etatik 19:30etara Kultura Etxean.
Plaza kopuru mugatua. Izen emateak maiatzaren 7tik aurrera 94 403 48 50 telefonoan. Matrikula zabalik, bertan errolatutako emakumeentzako hiru euro eta gainontzekoentzat 5 euro.



Emakumeentzako adierazpen eta autozainketarako tailerra

Hazkunde pertsonalerako eta adierazpen mota desberdinak -ahozkoa, idatzia edo dantza bitartekoa- bultzatzeko tailerra da hau. Emozioak adierazteko ikastaro ludikoa eta sortzekoa, adina edo bakoitzaren bizi egoera kontuan hartu gabe.
Asteazkenero, sei sesioetan, maiatzaren 16an hastekoa, 18:00etatik 20:00etara Kultura Etxean. Plaza kopuru mugatua. Informazio gehiago eta izena emateko maiatzaren 7tik aurrera 94 403 4850 telefonoan. bertan errolatutako emakumeentzako hiru euro eta gainontzekoentzat 5 euro.

Eta gogoan izan oraindik plazak libre direla honako tailer hauetan

Familia ekonomia hobeto kudeatzeko etxeko ekonomiari buruzko tailerra
Maiatzaren 9, 16, 23 eta 30ean, goizeko 10:00etatik 12:00etara Kultura Etxean. Plaza kopuru mugatua. Informazio gehiago eta izena emateko apirilaren 24tik aurrera 94 403 4850 telefonoan. Doan.
Hitz gabeko komunikazioaren, irudi pertsonalaren eta inteligentzia emozionalaren garrantziari buruzko oinarriko tailerra
Maiatzaren 7tik 28ra bitartean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara Kultura Etxean. Plaza kopuru mugatua. Informazio gehiago eta izena emateko apirilaren 24tik aurrera 94 403 4850 telefonoan. Doan

Aipatutako edozein tailerretan izena emateko Laudio Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren bitartez egin beharko da 94 403 48 50 telefonoan.

GRAVN Txapelketako finalak maiatzaren 4an Aretako frontoian

Beste urte batez, Herriaren pilotazale klubak federakunde txapelketa ospetsua antolatuko beharra bere gain hartuko du. Maiatzaren 4ean, barikua, arratsaldeko 17:30etatik aurrera Aretako frontoian izango dira finalak

eta EITBk eskainiko ditu. Euskadiko federakundeak antolatutako GRAVN txapelketan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxak parte hartzen dute eta gazteen, 22 urte baino gutxiagoko kategoria eta senior mailako jokalari

lariez osatuta dago. Aurreko urteko arrakasta berdinen lekuko izan nahi duten pilotazale guztiak, momentuko afizionatu onenak ikusteko aukera izango dute aurten ere.

Laudio Ikastolak Batxilergoako aurrematrikula zabalduko du maiatzaren 2tik 11ra

2012/2013 ikasturterako aurrematrikula zabalduko du Laudio Ikastolak maiatzaren 2tik 11 bitartean. Ikasturte honetan DBH etapa euskaraz ikasten amaituko duten ikasleei zuzendutako eskaintza egingo du Ikastolak Giza eta Gizarte Zientziak eta Zientzia-Teknologia Batxilergo modalitateetan.
Giza eta Gizarte Zientziak moda-

litatearen lehenengo mailan bi ibilbide akademiko eskaintzen ditu Ikastolak, bigarren mailara igarotzean lau ibilbide aukeratarazabaltzen dena. Zientzia-Teknologia modalitatearen kasuan, lehenengo mailan lau ibilbide eskaintzen dituzte, bigarren mailara igarotzean zazpi ibilbide aukeratarazabaltzen direnak. Batxilergo ondorengo irteerak eta

ikaslearen benetako gaitasunak kontuan hartuta, etapa honetan hasteko ibilbidea diseinatzeko laguntza zuzena eskainiko die Laudio Ikastolak aurrematrikulara hurbilduko diren guztiak. Ikastolako idazkaritzan, www.laudioikastola.net web gunean eta 94 672 67 37 telefonoan aurrematrikula bideratzeko argibide guztiak eskura daude.

Scorsesek zineari egindako omenaldia eta Sherlock Holmesen azken abenturak Laudio Top Zinema

Ametsak eragiteko makina lilurgarria den zinearen Martin Scorsesek egindako omenaldia eta Guy Ritchiek zuzendutako azken lana eta Arthur Conan Doylek sortutako pertsonaiaren abenturen bigarren zine emanaldia izango

dira Laudio Top Zinema ekimenak zinezaleak Lan Heziketako Udala ikastetxeko pantailara pegapega eginda uzteko harri bitxiak. Hautatu eguna eta ordua era Gozatu Zazpigarren Artearen azken lanez:

-**Maiatzak 5** larunbata, 17:30 eta 20:00: LA INVENCIÓN DE HUGO (2€ LHUlan)
-**Hilak 12** larunbata, 17:30 eta 20:00: SHERLOCK HOLMES: JUEGOS DE SOMBRAS (2€ LHUlan)

Errioxako bost ardo handiak" dastatze jardunaldiak maiatzaren 7tik 11ra

48ko Uztako kideek "Errioxako bost ardo handiak" dastatze jardunaldiak antolatuko ditu maiatzaren 7tik 11ra bitartean arratsaldeko 19:30etatik aurrera Euskal Gastronomía Museoa. Jardunaldi hauetan Errioxako ardo onenak dastatu eta errioxar erki-degoko mahastiek emandako fruitu onenez egindako ardoak zelan probatu erakutsiko da.

tu onenez egindako ardoak zelan probatu erakutsiko da.

Segura upategiak (Laguardia)
• **Hilak 9**, asteazkena: Artuke upategi eta mahastiak (Baños de Ebro)
• **Hilak 10**, osteguna: Torre de Oña (Paganos-Laguardia)
• **Hilak 11**, ostirala: Frías del Val anaiak (Villabuena)

Parte hartzen duten upategiak:
• **Hilak 7** astelehena: Classica upategiak (San Vicente de la Sonsierra)
• **Hilak 8**, asteartea: Gomez de

2012ko Garagardoaren Ibilbidean izena emateko epea hilaren 3an bukatuko da

Apill elkarteak urte honetarako Garagardoaren Ibilbidean izena eman nahi duten ostalaritza lokalek inskripzioa maiatzaren 3ª baino lehen egin beharko

dutela gogorazi nahi die. Informazio gehiago edo izena emateko deitu Apillen 94 672 28 01 telefonora.

Hemen

ascensores • igogailuak

ayala • aiara

Mantenimiento de Ascensores

Tfno.: 946 12 23 23 – 945 24 18 45
aiara@ascensoreshemen.com
Viña Vieja Nº9. Laudio-Llodio.

GRACIAS

Por vuestra confianza en el proyecto Hemen. 450 clientes nos avalan

Continuaremos trabajando por mejorar su ascensor
SIN ESPECULAR CON LOS PRECIOS SIN IMPOSICIONES

Fundada por trabajadores de Ayala y Alto Nervión.	Empresa con mayor proyección de Álava en su sector.	Oficina Central: Pintor Ortiz de Urbina, 9 (Vitoria-Gasteiz)
Servicio 24 horas: No sólo de rescate sino también reparación.	Tramitamos su cambio de proveedor	Otras Delegaciones: - Gipuzkoa - La Rioja

Udalak 2.350 euro bideratuko ditu uda garaian herrialde txiroetako haurrak etxean jasotzeari

Iragan apirilaren 13an, aurretiaz Udaleko Gobernu Batzordeak adostutako Uda garaian herrialde txiroetako haurrak jasotzeko programa Garate ahal izateko programaren diru laguntzak arautuko dituen arauak argitaratu ziren; horren bitartez eta programa hori gauzatzera 2.350 euroko dirulaguntza bideratzea adostu da.

Deialdiarekin bat egin nahi duten elkarteek, programaren inguruko oinarriak eskuragarri izango dituzte Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun arloko bulegoetan. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 14an bukatzen da.

Bono taxi programak ezintasun larriak dituzten pertsonen joan etorriak egiteko diru laguntzak eskainiko ditu

Udaleko Gobernu Batzordeak 2012ko bono taxi programa onartu du. Programa honen bitartez, mugikortasun arazoak eragiten dizkieten ezintasun arazo larriak pairatzen dituzten pertsonen diru laguntzak eskaintzen zaizkie, beti ere euren joan etorri pertsonalak egiteko taxi zerbitzu bat erabil dezaten.

Bono taxia eskatzeko honako baldintza hauek bete beharko dira: Laudion erroldatuta egotea, 12 eta 65 urte bitartean izatea eta garraio publikoa erabiltzeko erabateko zailtasunak eragiten dizkien gutxieneko %33ko ezintasun bat izatea.

Laguntza mota hau eskuratu nahi duten interesatutako pertsonen, informazio gehiago eskuratu ahal izango dute aurretiazko zita eskatuta Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun arloko bulegoan edo 944034840 telefonon.

Aparkaleku txartelen berritzea

Eredu zaharreko aparkaleku txartelak dituzten pertsonen Gizarte Zerbitzuetatik albaite arinen pasa daitezela erregutzen zaie, Europar Batasunak homologatutako eredu kontuan hartutako eredu eguneratze aldera. Horretarako karnet formatuko eguneratutako argazki bat eta errolda- agiria ekarri beharko dute.

Apdemaren kirol eskaintza adimen ezintasunen bat duten pertsonen zuzenduta

Apdemako Aisialdia eta Parte Hartze Zerbitzuak ekaina bitartean adimen ezintasunen bat duten pertsonen zuzendutako kirol ikastaroak martxan jarriko direla jakinarazi nahi du. Eskaintza mantentze gimnasia, kirol ekintza anitzak eta igeriketa jarduerak osatzen dute eta Ardantzazarreko egoitzan edo Granja Lamuzako kiroldegian egingo dira.

Aurreko kanpainetan bezala, kirol eskaintza are hobeto bermatzeko asistentzia kontrola egingo da. Plaza kopuru mugatua. Informazio gehiagorako 945 258 988 telefonoa edo service@apdema.org emaila.

Garapenerako lankidetzeta laguntzak

Udalak, 2012ko Garapenerako Lankidetzeta proiektuak diruz laguntzeko deialdiaren oinarri-eraketa onartu berri ditu. Oinarriak Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko bulegoetan eskuragarri dira.

Aurrekoetan bezala, GKEen proiektuak diruz lagunduko dira, beti ere, Laudio kirol herritarren eta proiektuak jasoko dituzten herrialdeetako kolektibo desberdi-

nen arteko harremanak sendotzeko eta garapen bidean diren herrialdeetako hazkunde ekonomiko eta kulturalaren aldeko proiektuak ordaintzeko.

Helburu hau betetzera, 25.000 euroko diru laguntza bideratu da. Eskaerak Udaleko Herritarren Arrera Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, Arabako Agiri Ofizialean argitaratu eta hogeitamar egunera, erregistratu ahal izate-

ko, hau da maiatzaren 24a baino lehen.

Bertan parte hartu nahi duten erakundeek, aurretiaz Oinarriak zehaztutako eredu egokitu beharko dituzte euren proiektuak eta bertan eskatzen diren dokumentu guztiak erantsi beharko dituzte.

Informazio gehiago Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloan (Tel. 944034840).

Apillek ere Amaren eguna ospatuko du

Amaren Eguna ospatzeko hitzorduetara bat eginez, Apillek bertako komertzioarekin zerikusia duten bi ekimen antolatuko ditu. Batetik eta maiatzaren 6^a baino lehenagoko asteetan, Apilleko edozein dendetan amatxoren eguneko oparia bertan erosi dela erakusten duen tiketa izango duten guztiak, Urduñako baino etxerako

bi bonoren eta Apilleko edozein dendetan trukatzeko hiru erosketaren zozketan parte hartzeko aukera izango dute.

Bestetik, maiatzaren 7an, astelehena, elkartearekin bat egindako merkatariekin eta TCA txartelarekin fidel mantentzen diren bezero andereak sarituko ditu Apillek. Maiz TCA txartela

erabiltzen duten hiru bezerori 100 euroz kargatutako eta Apillekin bat egindako dendetan trukatzeko hiru bale entregatuko dizkie merkatarri elkarteak.

Horrez gain eta Laudio kirol ama guztiak omentze aldera, Zumalakarregi etorbidean kokatutako amatxoren monumentua lorez apainduko da.

Euskalduna zara eta lan egin nahi duzu?

Horrelako zerbitzuak euskaraz izan nahi dituzu?

- Aisialdirako begiraleak
- Eskola partikularretarako irakasleak
- Kirol begiraleak
- Saio aurkezleak
- Ume-zaintzaileak ("kanguruak")

Galdetu audio udalaren euskara arloan: euskara@audiokoudala.net // 944034890.

Bertan emango dizkizute arloa heldutako lan egiteko prest dauden eskaintzak. Geroko lan-harremana zuen artekoa izango da, udalak erantzukizunik, ardurarik

edo jarraipenik egin behar izan gabe.

Prest al zaude goragoko esparruetako batean lan egiteko?

Eman zure kontaktua eta kurrikulum bat (gaiari lotutakoa baino ez; euskarri digitalean mezu baten bitartez; aipatu euskararen ezagutzari dagokiona) eta zerbitzua eskatzen digun enpresa, elkarte edo herritarrari informazio hori emango dio Euskara arloak. Geroko lan-harremana zuen artekoa izango da, udalak erantzukizunik, ardurarik edo jarraipenik egin be-

har izan gabe.

- Zerrenda batean baino gehiagotan eman dezakezu izena.
 - Ez da inolako azterketarik edo probarik egingo.
 - Ezinbestekoa da 18 urte beteak izatea.
 - Euskarazko lan-harremanak eta zerbitzuen eskaintza errazteko ekimena da berau. Beraz, ezinbestekoa da euskaraz ondo, eroso... moldatzea.
- Oharra: Heldutako datuez zeren da berri bat prestatutako da. Honen baliogabe utziko du orain arte erabilitakoa.

Eskola mendi taldeak bere egin du Pozalaguako tontorra

Laudio kirol eskolaren mendi taldeak mendi ikastaroaren erdialdea gainditu berri du Raneno mendirako eta Pozalaguako haitzuloetarako txangoa bete ostean, Bizkaia eta Cantabria arteko muga natural eder eta liluragarria.

729 metroko altuerak ez zuten

oztoporik suposatu zortzigarren mendi irteera honetan parte hartu zuten kideentzako eta ahaleginak eta bi eginda eta mendialetasuna beti presente izanda jomugatzak jarriko zaizkien Euskadiko mendiak zapaltzeko prest dira, horien artean Perriain mendia/ Aldako guru-

tzeta. Eta bien bitartean, geldi geratzen ez dakitela erakustearren mendialetasunaren erlaxatutako beste ekintza batzuk beteko dituzte, besteak beste eskalada edo orientazio ikastaroak, biak ere aholkularitza bereziarekin.

Matxintxu Haurreskolak datorren ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du

Matxintxu audioar haur eskolak, EAEko Haurreskola partzuergoko zentroak 0 eta 2 urte bitarteko haurren matrikulazio epea maiatzaren 2tik 11ra bitartean zabalik izango duela jakinarazi nahi die audioar guraso guztiei. Gogoan izan jaio ez diren haurren matrikulazioari ezin izango dela bete, haurrak 16 aste behintzat beteta izan beharko dituela bertan izena emateko eta zentroak ez dituela plazak gordetzen. Informazio gehiago biltzea behar duten pertsonak Ardantzazar kaleko 5 zenbakian kokatutako Matxintxu haurreskolara joan daitezke, edo bestela 944049543 telefonora deitu.

